Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko apirilaren 13a, asteazkena — 71 — Miércoles, a 13 de abril de 2022

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

*Internazionalizazio dirulaguntza programaren oinarri arautzaileak eta 2022. urteko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2022ko martxoaren 29an:

Gipuzkoako Foru Aldundiak, legealdi honetan, helburu estrategiko hau jarri dio bere buruari: susperraldi ekonomikoari eustea. Horretarako, Diputatuen Kontseiluak, onetsitako 2020-2023ko Plan Estrategikoaren bitartez, lortu nahi du Gipuzkoako enpresei laguntzea hobeak eta eraginkorragoak izan daitezen, produktu eta zerbitzu berriak sortzeko, halakoek lagunduko baitiete etorkizuneko erronkei erantzuten.

Munduko ekonomia aldatzen ari da, eta aldaketa horien abiadurak ziurgabetasun handia sortzen du. Ekonomiaren globalizazioak edo herrialde industrializatu berrien gorakadak erreferentziazko esparru berri bat sortu dute, eta enpresak esparru horretan jardun behar dira. Gure enpresek, tradizioz, batez ere merkatu estatala izan dute xede, eta merkatu hori, orain, suspertzen ari da pixkanaka, denbora luzez geldirik egon ondoren. Hori guztia dela-eta, nazioartekoagoa eta konplexuagoa den testuinguru horretan, geroz eta ugariagoak dira internazionalizazio prozesuei ekiten dieten enpresa txikiak. Enpresa horientzat, askotan, zaila izaten da merkatuak ezagutzea eta geroz eta konplexuagoak diren eragiketa internazionaletan parte hartzea.

Hori horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiaren helburuen artean dago enplegua sortzen duten eta berrikuntza eta internazionalizazioan oinarritzen diren enpresa efikaz eta efizienteak sustatzea. Garrantzitsua da Gipuzkoaren esportazio oinarria handitzea; horretarako, enpresa gipuzkoarrei nazioartekotzen laguntzeko behar duten sostengua eta babesa eman behar zaie, nazioartekotzea baita garapenerako eta hazkunderako «lerro nagusia».

Azaldutako guztia kontuan hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak, internazionalizaziorako laguntzen programarekin jarraitu nahi du, Gipuzkoako enpresei lagunduz nazioarteko presentzia indartu dezaten eta atzerriko negozioa zabaldu dezaten, produktu berriak nazioarteko merkatura eramateko, eta atzerrian enpresa filialak sortu, handitu edo erosteko ekintzak sustatuz. Aurten, gainera, lerro berri bat proposatu da, irabazi-asmorik gabeko erakunde adierazgarriek, balio-kate bereko enpresen dinamizatzaile gisa (kluster) talde-izaera duten merkataritza-ekintzak sustatzeko eta horrela enpresa txikien nazioartekotzea errazteko.

Dirulaguntza hauek Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude.

Horiek horrela, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL

*Bases reguladoras y convocatoria 2022 de las subvenciones del programa de Internacionalización.*

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 29 de marzo de 2022:

La Diputación Foral de Gipuzkoa se ha planteado como objetivo estratégico en esta legislatura apuntalar la recuperación económica. Para ello, el Plan Estratégico 2020-2023 aprobado por el Consejo de Gobierno Foral pretende apoyar a las empresas guipuzcoanas para ser mejores y más eficientes, para crear nuevos productos y servicios que les ayuden a afrontar los retos de futuro.

La economía mundial se encuentra en un momento de cambios y su velocidad está generando gran incertidumbre. La globalización de la economía o la aparición de nuevos países industrializados suponen un nuevo marco de referencia en el que deben interactuar las empresas. El mercado estatal al que tradicionalmente se han dirigido de forma prioritaria nuestras empresas se está recuperando lentamente de un largo periodo de estancamiento y en este contexto más internacional y complejo, cada vez son más el número de empresas de menos tamaño o pequeñas que afrontan sus procesos de internacionalización. Estas empresas se encuentran muchas veces con dificultades para conocer los mercados y acceder a operaciones internacionales cada vez más complejas.

Entre los objetivos de la acción de la Diputación Foral de Gipuzkoa se contempla el impulsar empresas eficaces y eficientes generadoras de empleo, basadas en la innovación y la internacionalización. Se considera relevante el incrementar la base exportadora de Gipuzkoa, a través de la ayuda, impulso y acompañamiento en la internacionalización a las empresas guipuzcoanas como «línea maestra» para su desarrollo y crecimiento.

Considerando lo expuesto, con este programa de ayudas a la internacionalización se quiere continuar con el impulso de la apertura exterior de las empresas guipuzcoanas para que aumenten su presencia internacional y su negocio exterior, a través del fomento y la promoción de la comercialización y el lanzamiento de nuevos productos en el mercado internacional, así como fomentando en el exterior la creación, ampliación o adquisición de filiales con participación mayoritaria. Este año, además, se propone una nueva línea para impulsar acciones comerciales de carácter grupal, promovidas por entidades representativas sin ánimo de lucro que actúen como dinamizadoras de empresas pertenecientes a una misma cadena de valor (clúster) y facilitar así la internacionalización de pequeñas empresas.

Estas subvenciones se encuentran incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Por todo ello, a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

EK\CV GAO-I-2022-02098

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onestea Internazionalizazio programako dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorrak, erabaki honen I. eranskinean jasota daudenak eta oinarri arautzaile espezifikoak, erabaki honen II, III. eta IV. eranskinetan jasota daudenak.

*Bigarren.* Onestea dirulaguntzen 2022ko deialdia, erabaki honen V. eranskinean jasota dagoena.

*Hirugarren.* 1.000.000 euroko gastua baimentzea deialdi hau gauzatzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretako kontu sail hauen kargura:

Produktu berria nazioartean merkaturatzea:

1.0420.210.470.00.01.2022: 300.000 euro.

5.0420.210.470.00.01.2023: 250.000 euro.

Atzerriko ezarpen produktiboak:

1.0420.210.770.00.02.2022: 200.000 euro.

5.0420.210.770.00.02.2023: 100.000 euro.

Sektorearen nazionartekotzea:

1.0420.210.470.00.03.2022: 100.000 euro.

5.0420.210.470.00.03.2023: 50.000 euro.

Baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzea.

*Laugarren.* Erabaki honen bidez onetsitako oinarri arautzaileek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera izango dute eragina.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek, zuzenean, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hala ere, interesdunek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete.

Donostia, 2022ko apirilaren 1a.—Segundo Díez Molinero, Departamentuko idazkari teknikoa. (2098)

I. ERANSKINA

*Internazionalizazio Programako dirulaguntzak emateko Oinarri arautzaile orokorrak.*

*1. oinarria. Xedea.*

Oinarri hauen helburua da Internazionalizazio programako dirulaguntzak emateko arauak ezartzea.

Dirulaguntzen helburua izango da Gipuzkoan kokatutako enpresak kanpora ireki daitezen bultzatzea, beren negozioa nazioarteko merkatuetara hurbiltzeko, hazteko eta sendotzeko.

Programa jarduera-ildo baten edo batzuen bidez garatu ahal izango da, eta horien ezaugarriak oinarri espezifikoetan arautuko dira.

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras generales que se adjuntan como anexo I y las bases reguladoras específicas que se adjuntan como anexo II, III y IV al presente acuerdo para la concesión de las subvenciones del programa de Internacionalización.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2022 de las citadas subvenciones, que se acompaña como anexo V al presente acuerdo.

*Tercero.* Autorizar un gasto por importe de 1.000.000 de euros para hacer frente a esta convocatoria con cargo a las siguientes partidas de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

Lanzamiento internacional de nuevo producto:

1.0420.210.470.00.01.2022: 300.000 euros.

5.0420.210.470.00.01.2023: 250.000 euros.

Implantaciones exteriores productivas:

1.0420.210.770.00.02.2022: 200.000 euros.

5.0420.210.770.00.02.2023: 100.000 euros.

Internacionalización sectorial:

1.0420.210.470.00.03.2022: 100.000 euros.

5.0420.210.470.00.03.2023: 50.000 euros.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

*Cuarto.* Las bases reguladoras aprobadas por el presente acuerdo producirán efectos desde el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 1 de abril de 2022.—El secretario técnico del Departamento, Segundo Díez Molinero. (2098)

ANEXO I

*Bases reguladoras generales para la concesión de las subvenciones del Programa de Internacionalización.*

*Base 1.ª Objeto.*

El objeto de las presentes bases es establecer las normas que han de regular la concesión de las subvenciones del programa de Internacionalización.

Las subvenciones tendrán como finalidad impulsar la apertura exterior de las empresas radicadas en Gipuzkoa en el acercamiento, crecimiento y consolidación de su negocio en los mercados internacionales.

El programa podrá desarrollarse mediante una o varias líneas de actuación, cuyas características se regularán en las bases específicas.

*2. oinarria. Dirulaguntzen onuradun izateko enpresek bete beharreko baldintzak.*

2.1. Erakunde onuradunak izango dira oinarri espezifikoetan ezartzen diren tamaina eta izaera beharkizunak betetzen dituztenak, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

— Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan ezarritako debekuen eraginpean ez egotea.

— Zigor administratiborik edo penalik ez izatea sexu diskriminazioa dela eta, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 legeak aurreikusitakoaren arabera.

*Baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko, eskatzaileak erantzukizunpeko aitorpen bat aurkeztuko du.

– Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egotea.

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak egiaztatuko du eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik; hori posible izango ez balitz, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dagokion dokumentazioa aurkeztea.

Eskaeran berariaz adierazi ahal izango dute egiaztapen automatikoaren aurka daudela; kasu horretan, Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako organo administratiboek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

2.2. Enpresak tamainaren arabera bereizi behar direnean, enpresaren tamaina zehazteko kontuan hartuko dira ekainaren 17ko Europako Batzordearen 651/2014 Erregelamenduaren (EB) I. eranskinean jasotako definizioak eta kalkuluak.

*3. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.*

3.1. Dirulaguntzen lerro bakoitzeko oinarri espezifikoetan zehaztuko dira dirulaguntza bakoitzaren xede diren jarduketak eta, lerro bakoitzari dagokionez, diruz lagundu daitezkeen gastuak.

3.2. Aintzat hartuko dira soilik dirulaguntzaren xede den proiektuarekin zalantzarik gabe identifikatu daitezkeen gastuak.

Fakturan jasanarazitako balio erantsiaren gaineko zerga ez da diruz lagundu daitekeen gastutzat joko.

Atzerriko fakturekin batera dagozkien itzulpenak aurkeztuko dira, behar bezala ulertzeko beharrezkotzat jotzen badira.

3.3. Bidaiei dagokienez, bidaia poltsak gastutzat hartuko dira eta destinoaren arabera kalkulatuko dira. Aintzat hartuko dira Eusko Jaurlaritzak onartutako bidaia poltsetan ezarritako zenbatekoak eta kudeaketa ereduak, atzerriko ezarpenak sustatzera bideratutako laguntzen urteko deialdiaren arabera.

3.4. Proiektu bat ez da onartuko definizioan hutsune nabarmenak baditu (azalpen argia) edo emandako daturen bat faltsutu dela ikusten bada, dagokiona ez den puntuazioa lortzeko asmoz. Kasu horretan, gainera, erantzukizunagatiko beste egintza batzuk erabaki daitezke.

3.5. Nolanahi ere, proiektuetan ez da onartuko sexuaren araberako bereizkeriarik eta saiatu beharko dira sexuaren araberako zereginak eta estereotipoak ezabatzen.

*4. oinarria. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

4.1. Enpresa bakoitzak proiektu bakar bat aurkez dezake deialdi bakoitzeko. Proiektu bat baino gehiago aurkezten baditu, lehenik aurkeztutakoa bakarrik hartuko du kontuan prozeduraren organo izapidegileak.

*Base 2.ª Requisitos que deben reunir las entidades beneficiarias.*

2.1. Tendrán la consideración de entidades beneficiarias aquellas que reúnan los requisitos de tamaño y naturaleza que se establezcan en las bases específicas, siempre que reúnan los siguientes requisitos:

— No estar afectadas por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— No haber sido sancionadas, administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, según lo previsto en la ley 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

*La acreditación de estos requisitos se efectuará mediante la presentación de una declaración responsable.

– Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social.

El Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural comprobará el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. A tal fin, recabará los referidos datos directamente de los organismos emisores de los mismos; en caso de que ello no fuera posible, podrá requerirse excepcionalmente su aportación por la persona solicitante.

Podrán manifestar en la solicitud su oposición expresa a la verificación automática, en cuyo caso deberán aportar las correspondientes certificaciones expedidas por las instancias administrativas de Hacienda y Seguridad Social.

2.2. Cuando sea necesaria la distinción de empresas por tamaños, para la determinación del tamaño de empresa, se utilizarán las definiciones y método de cálculo de efectivos contenidos en el anexo I del Reglamento (UE) n.º 651/2014, de la Comisión Europea, de 17 de junio.

*Base 3.ª Gastos subvencionables.*

3.1. En las bases específicas de cada línea de subvención, se detallarán las actuaciones objeto de subvención y gastos susceptibles de apoyo de cada una de las líneas.

3.2. Solo se considerarán los gastos que puedan identificarse inequívocamente con el proyecto objeto de la subvención.

No tendrá la consideración de gasto elegible el Impuesto sobre el Valor Añadido repercutido en factura.

Las facturas de otros países deberán estar acompañadas de su correspondiente traducción cuando así se estime necesario para su correcta comprensión.

3.3. En relación a los viajes, el gasto consistirá en bolsas de viaje calculadas según destinos. Se considerarán los importes y modelo de gestión establecidos en las bolsas de viaje aprobadas por el Gobierno Vasco, según la convocatoria vigente de concesión de las ayudas dirigidas a la promoción e implantación en el exterior.

3.4. No se tendrán en cuenta aquellos proyectos que presenten carencias relevantes en su definición (claridad de la exposición) o en los que se detecte falsedad en alguno de los datos aportados con intención de obtener una puntuación que de otra forma no le correspondería, sin perjuicio de las actuaciones de responsabilidad que pudieran determinarse por ello.

3.5. Los proyectos no serán discriminatorios por razón de sexo y deberán procurar la eliminación de roles y estereotipos en función del sexo.

*Base 4.ª Forma y plazo de presentación de solicitudes.*

4.1. Cada entidad sólo podrá presentar un único proyecto por convocatoria. En caso de presentar más de una solicitud, el órgano instructor del procedimiento únicamente considerará la presentada en primer lugar.

EK\CV GAO-I-2022-02098

4.2. Eskaerak eta erantsitako dokumentazioa bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztu behar dira, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez (https://egoitza.gipuzkoa.eus), dirulaguntzen atarian sartuz eta horretarako eskuragarri dagoen eskabidea betez. Eskaera orria, eta hari erantsitako dokumentazioa aurkezterako orduan kontuan hartuko da, irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua, foru administrazioaren esparruan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duena.

4.3. Laguntza eskaera sinatu behar du pertsona interesatuaren ordezkari dela legezko edozein bidetatik egiaztatzen duenak.

4.4. Deialdiari buruzko informazioa web orri honetan eskura daiteke: www.gipuzkoa.eus/dirulaguntzak.

4.5. Eskaerak aurkezteko epea deialdian ezarriko da.

4.6. Eskaera egin duten erakundeak ez daude beharturik Gipuzkoako Foru Aldundiari aurrez eman diren dokumentuak aurkeztera. Ondorio horietarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluak zehazten duenari jarraituz. Kasu hauetan, eskaera orrian zehaztu beharko du noiz eta zer organo edo dependentziatan aurkeztu edo igorri ziren aipatutako dokumentuak. Dokumentazioa lortzea ezinezkoa den kasuetan, organo eskumena duen organoak eskatu ahal izango dio eskaera egin duen erakundeari, edo aurkez dezala, edo, ezin badu, beste nolabait egiazta ditzala dokumentuan egiaztatu beharreko eskakizunak.

4.7. Eskaera orriak, edo harekin batera aurkeztutako agiriek, identifikazio daturik jasoko ez balute, akatsen bat izango balute edo daturen bat faltako balute, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, hamar eguneko epea emango litzaioke eskatzaileari hutsegite horiek konpontzeko, edo dagozkion dokumentuak aurkezteko, eta ohartaraziko litzaioke, horrela egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, aipatutako legeak 21.1 artikuluan aurreikusitako eran emandako ebazpenaren ondoren.

4.8. Aurkeztutako eskaera behar bezala ebaluatu eta ebazteko behar adina dokumentu eta informazio osagarri eska ditzake departamentuak.

*5. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura.*

5.1. Dirulaguntzak emateko prozedura elkarrekiko norgehiagoka izango da, oinarri espezifikoetan jasotako laguntza lerro bakoitzeko deialdia eta hautaketa prozedura bakarra eginez.

5.2. Laguntzak emateko prozedura aurreko atalean aipatu deialdi publikoaren bidez hasiko da. Deialdi hori organo eskudunak onartuko du eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

*6. oinarria. Balorazio irizpideak.*

Deialdira aurkezten diren eskaerak oinarri arautzaile espezifikoetan jarduera lerro bakoitzerako zehazten diren irizpideen arabera baloratuko dira.

*7. oinarria. Finantzaketa.*

Emango diren dirulaguntzak deialdiko urteari dagozkion Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdian zehaztuko da zein aurrekontu kredituren kargura finantzatuko diren subentzioak.

*8. oinarria. Dirulaguntzen zenbatekoa.*

8.1. Dirulaguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera zehaztukoa da, betiere aurrekontu baliabideak eta oinarri hauetan ezarritako balorazio irizpideak kontuan hartuta.

4.2. Las solicitudes, junto con el resto de documentación, deberán presentarse, vía Internet, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), accediendo al portal de subvenciones y cumplimentando el formulario específico disponible a estos efectos. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral.

4.3. La solicitud se suscribirá por la persona que acredite la representación de la entidad interesada por cualquier medio válido en derecho.

4.4. La información de la convocatoria estará disponible en la página web www.gipuzkoa.eus/subvenciones.

4.5. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria.

4.6. Las entidades solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que hayan sido aportados anteriormente a la Diputación Foral de Gipuzkoa. A estos efectos, el interesado deberá indicar en qué momento y ante qué órgano administrativo presentó los citados documentos de conformidad con lo previsto en el artículo 28.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre. En estos casos, deberán indicar en el impreso de solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos dichos documentos. En los supuestos de imposibilidad material de obtener la documentación, el órgano competente podrá requerir a la entidad solicitante su presentación o, en su defecto, la acreditación por otros medios de los requisitos a que se refiere el documento.

4.7. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 21.1 de la citada ley.

4.8. El departamento podrá requerir cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

*Base 5.ª Procedimiento de concesión.*

5.1. El procedimiento de concesión de las presentes subvenciones será el de concurrencia competitiva, mediante convocatoria y procedimiento selectivo único por cada una de las líneas de apoyo recogidas en las bases específicas.

5.2. El procedimiento de concesión se iniciará de oficio, mediante la convocatoria pública a la que se hace referencia en el apartado anterior, aprobada por el órgano competente y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*Base 6.ª Criterios de valoración y puntuaciones.*

Las solicitudes que se presenten a la convocatoria se valorarán de acuerdo con los criterios que para cada una de las líneas de actuación se fijan en sus bases reguladoras específicas.

*Base 7.ª Financiación.*

Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa correspondientes al año de la convocatoria. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

*Base 8.ª Cuantía de las subvenciones.*

8.1. El importe subvencionable y la subvención se fijarán con arreglo a la documentación aportada por la entidad solicitante, teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias y los criterios de valoración definidos.

EK\CV GAO-I-2022-02098

8.2. Entitate eskatzaileak aurkeztutako aurrekontu banakatua edo ondorengo aldaketak erreferentziatzat hartuko dira dirulaguntzaren azken zenbatekoa zehazteko; zenbateko hori jardueraren kostu diruz laguntzarriaren portzentaje gisa kalkulatuko da, eta dirulaguntzaren azken zenbatekoak ezingo du hasieran emandakoa gainditu.

8.3. Dirulaguntzen ehunekoa eta gehieneko zenbatekoa, dirulaguntza lerro bakoitzeko zehaztuko da, proiektu motaren, entitate eskatzailearen eta gastu motaren arabera.

*9. oinarria. Prozedura izapidetzeko eskumena duen organoa.*

9.1. Prozedura izapidetuko duen organoa Berrikuntza Teknologikoko eta Internazionalizazioko Zerbitzua izango da.

9.2. Aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatzeko, Batzorde Ebaluatzailea eratuko da. Batzorde horretan bi sexuen arteko ordezkaritza orekatua bilatuko da; ordezkaritza orekatua dagoela ulertuko da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 20. artikuluan aurreikusitakoa betetzen bada. Bestalde, Batzorde Ebaluatzailean egongo dira, gutxienez, kargu hauek betetzen dituzten pertsonak edo haiek eskuordetutakoak:

— Berrikuntzako eta Internazionalizazioko zuzendari nagusia.

— Berrikuntza Teknologikoko eta Internazionalizazioko Zerbitzuko burua.

— Berrikuntza Teknologikoko eta Internazionalizazioko Zerbitzuko teknikaria.

— Departamentuko Idazkaritza Teknikoko funtzionarioa.

9.3. Aurkezten diren eskaerak egoki baloratzeko, aholkularitzako zerbitzuak eta txosten teknikoak eska ditzake batzordeak.

*10. oinarria. Eskaerak ebaztea.*

10.1. Dirulaguntza eman edo ez ebaztea Departamentuko foru diputatuari dagokio, kontuan hartuta Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruz indarrean dagoen foru dekretuan zehaztutakoa.

10.2. Laguntzak eman edo, hala dagokionean, ukatzeko erabakia eskatzaile bakoitzari indibidualki jakinaraziko zaio. Hala eta guztiz ere, organo emaileak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko ditu emandako dirulaguntzak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 17 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Onuradunak 10 eguneko epea izango du, jakinarazpenaren datatik aurrera, dirulaguntza onartzeko. Kontrakoa berariaz jakinarazten ez bada, tazituki onartutzat joko da.

10.3. Emakidaren ebazpenak, dirulaguntza ematen zaien enpresen zerrenda jasotzeaz gain, enpresa eskatzaileek lortutako puntuazioaren zerrenda jaso beharko du, beheranzko hurrenkeran, ezarritako balorazio-irizpideen arabera, enpresa horiei, pertsona onuradun izateko baldintza administratibo eta teknikoak beteta ere, ez zitzaielako dirulaguntzarik eman gainerakoek baino puntuazio txikiagoa lortu zutelako eta aurrekontu-kreditua agortu zelako. Zerrenda horretan dauden entitateak itxarote zerrendan geratuko dira, emandako dirulaguntzetakoren bati uko egingo balitzaio.

Oinarri espezifikoetan aurreikusitako ehunekoak aplikatuz legokiokeena baino txikiagoa bada zenbatekoa, enpresari jakinaraziko zaio, behar izanez gero, aurkeztutako proiektua berriro formulatu dezan, dirulaguntza onartu dezan edo hari uko egin diezaion.

10.4. Prozedura ebatzi eta jakinarazteko gehienezko epea 6 hilabetekoa izango da, deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita. Gehieneko epea amaituta ebazpena berariaz jaki-

8.2. El presupuesto desglosado presentado por la entidad solicitante o sus modificaciones posteriores servirán de referencia para la determinación final del importe de la subvención, calculándose ésta como un porcentaje del coste subvencionable final de la actividad, sin que el importe final de la subvención pueda superar el inicialmente concedido.

8.3. El porcentaje e importe máximo de las subvenciones a conceder se determinará por cada una de las líneas de subvención en función del tipo de proyecto, entidad solicitante y tipo de gasto.

*Base 9.ª Órgano competente para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

9.1. El órgano instructor del procedimiento será el Servicio de Innovación Tecnológica e Internacionalización.

9.2. Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión Evaluadora que tendrá en cuenta la necesidad de una representación equilibrada de ambos sexos, entendiéndose como tal, lo previsto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, sobre Igualdad de Mujeres y Hombres en su artículo 20 y en la cual participarán, al menos, las personas que ostenten los siguientes cargos o personas en las que deleguen:

— Director/a general de Innovación e Internacionalización.

— Jefe/a del Servicio de Innovación Tecnológica e Internacionalización.

— Técnico/a del Servicio de Innovación Tecnológica e Internacionalización.

— Funcionario/a de la Secretaría Técnica del departamento.

9.3. Dicha comisión podrá solicitar el asesoramiento y la emisión de los informes técnicos pertinentes para una adecuada valoración de las solicitudes presentadas.

*Base 10.ª Resolución de la concesión.*

10.1. La resolución sobre la concesión o, en su caso, denegación de las ayudas corresponderá al diputado foral del departamento, de conformidad con lo señalado en el Decreto Foral vigente de estructura orgánica y funcional.

10.2. La resolución de concesión o, en su caso denegación, se notificará a cada solicitante. No obstante, el órgano concedente publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa las subvenciones concedidas, según lo establecido en el artículo 17 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La entidad beneficiaria dispondrá de un plazo de 10 días, a partir de la fecha de la notificación, para su aceptación, que se entenderá tácitamente aceptada si no existe comunicación expresa en contrario.

10.3. La resolución de concesión, además de contener la relación de las empresas a las que se concede la subvención deberá contener una relación, por orden decreciente, de la puntuación obtenida por las empresas solicitantes, en función de los criterios de valoración establecidos, a las que, aun reuniendo las condiciones administrativas y técnicas para adquirir la condición de persona beneficiaria, no se les concedió subvención por obtener una puntuación inferior a la del resto y haberse agotado el crédito presupuestario. Estas entidades quedarán en lista de espera para el caso de que algunas de las subvenciones concedidas quedaran sin efecto por renuncia.

En el supuesto de que el importe fuera inferior al que correspondería en aplicación de los porcentajes previstos en las bases específicas, se pondrá en conocimiento de la empresa para que, en su caso, reformule el proyecto presentado, acepte la subvención o renuncie a la misma.

10.4. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución será de 6 meses, contados a partir del día siguiente al de publicación de la convocatoria. El vencimiento del plazo máximo

EK\CV GAO-I-2022-02098

narazi ez bada, interesatuak legitimatuta daude dirulaguntza eskaera isiltasun administratiboagatik ezetsita dagoela ulertzeko.

*11. oinarria. Enpresa onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.*

11.1. Erakunde onuradunek dirulaguntza onartzeak berekin dakar honako hauetan ezartzen diren betekizunen pean egotea: oinarri hauek; martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa; eta hura garatzeko araudia, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartua, eta dirulaguntzen alorrean aplikagarria den gainerako araudia. Bestalde, konpromiso hauek hartuko dituzte:

— Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako irizpide nagusiak betetzea diruz lagundutako jardueretan, bereziki alderdi hauei dagokienez: hizkera eta irudiak modu ez sexistan erabiltzea eta diruz lagundutako jarduera ebaluatzeko irizpideetan genero adierazleak sartzea.

— Euskal Autonomi Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea diruz lagundutako proiektuaren ondorioz egiten diren jakinarazpen, material eta jardueretan.

— Departamentuak dirulaguntzaren xederako ematen duen finantzaketari beharrezko publizitatea ematea. Horretarako, haren irudi instituzionala sartuko da, finantzaketa publikoari eta esku hartze publikoko programaren xedeari buruzko aipamenekin batera, karteletan, material inprimatuetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan eta abarretan, hedabideetan egiten diren aipamenekin batera.

11.2. Emandako dirulaguntzak ondasun inbentariagarriak erosteko erabiltzen badira, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 30.4. artikuluan ezarritakoa bete behar da.

Horrenbestez, erakunde onuradunak dirulaguntzaren xederako erabili behar du eskuratutako ondasun hori, gutxienez 5 urtetan erregistro publiko batean inskriba daitekeena bada, eta gutxienez 2 urtetan beste kasu guztietan.

11.3. Baldin eta, dirulaguntza eman eta 5 urteko epean, programaren enpresa onuradunen batek bere produkzio zentroen parte esanguratsu edo garrantzitsu bat Gipuzkoatik kanpo lekualdatzen badu, enpresa onuradunak gertaera horren berri eman beharko dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta dirulaguntza itzularazteko arrazoi izango da hori, eta 16. oinarrian zehaztutakoari jarraituko zaio.

11.4. Programa taldearen behar eta ezaugarrietara ongi moldatzen dela ziurtatzeko, erakunde onuradunak behartuta egongo dira programaren ebaluazioan lankide izatera; horretarako, Berrikuntza Teknologikoko eta Internazionalizazioko Zerbitzuak egindako galdetegia bete beharko dute.

11.5. Diruz lagungarri izateak berekin dakar erakundeek Departamentuari proiektuari buruzko informazioa ematea eta baimena ematea komunikaziorako erabil dezaten, betiere baliabide publikoen erabileraren gardentasuna sustatze aldera.

11.6. Laguntza onartzearekin onuradunak onartu egingo du dirulaguntzari buruzko informazioa legez dagozkion edo programaren kofinantzazioagatik aplikatu dakizkiokeen datu baseetan sartzea.

*12. oinarria. Bateragarritasuna eta bateragarritasun-eza beste dirulaguntzekin.*

12.1. Dirulaguntza hauek bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek, Estatukoek nahiz Europar Batasunekoek, edo nazioarteko organismoek xede be-

sin haberse notificado resolución expresa, legitima a las personas interesadas para entender desestimada la solicitud por silencio administrativo.

*Base 11.ª Obligaciones y compromisos de las empresas beneficiarias.*

11.1. La aceptación de las subvenciones por parte de las entidades beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en las presentes bases, en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, su Reglamento de desarrollo (aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril) y demás normativa aplicable en materia de subvenciones, así como el compromiso de:

— Cumplir en sus actuaciones subvencionables con los principios generales establecidos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en especial en lo que concierne a los siguientes aspectos: uso no sexista del lenguaje y de las imágenes, e inclusión de indicadores de género en los criterios de evaluación de la actividad subvencionada.

— Garantizar el uso de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las comunicaciones, en la edición de materiales y en las actividades de divulgación que se deriven de la realización del proyecto subvencionado.

— Dar la adecuada publicidad a la promoción y financiación del departamento de los proyectos o actuaciones objeto de subvención, mediante la inclusión de su imagen institucional, así como de leyendas relativas a la financiación pública y al objeto del programa de intervención pública en carteles, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, y cualquier otro soporte o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

11.2. En el caso de que las subvenciones concedidas se destinen a la adquisición de bienes inventariables, será de aplicación lo establecido en el artículo 30.4 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

El periodo durante el cual la entidad beneficiaria deberá destinar tales bienes al fin concreto para el que se concedió la subvención no podrá ser inferior a 5 años en caso de bienes inscribibles en un registro público, ni a 2 años para el resto de bienes.

11.3. En el caso del traslado, por parte de alguna de las empresas beneficiarias del programa, de parte significativa o relevante de sus centros productivos fuera de Gipuzkoa en un plazo de 5 años desde la concesión de la subvención, la empresa beneficiaria deberá comunicar dicha circunstancia a la Diputación Foral de Gipuzkoa, lo cual será causa de reintegro de la subvención y se estará a lo establecido en la base 16.ª

11.4. A fin de asegurar la mejor adaptación del programa a las necesidades y características del colectivo, las entidades beneficiarias tendrán la obligación de colaborar en la evaluación del mismo mediante la cumplimentación del cuestionario que se pudiera desarrollar por parte del Servicio de Innovación Tecnológica e Internacionalización.

11.5. La aceptación de la ayuda implicará la obligación por parte de las entidades beneficiarias de facilitar al Departamento información relativa al proyecto y la autorización para su uso con fines de comunicación, todo ello con el objeto de impulsar la transparencia en la utilización de los recursos públicos.

11.6. La aceptación de la ayuda implicará que acepta la inclusión de la información relativa a la subvención en las bases de datos que legalmente correspondan o que pudieran ser de aplicación por la posible cofinanciación del programa.

*Base 12.ª Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones.*

12.1. Las subvenciones reguladas en las presentes bases reguladoras serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de

EK\CV GAO-I-2022-02098

rerako emandako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera eta baliabideekin, baldin eta ez badute jardueraren kostua gainditzen, betiere beste dirulaguntza horien araudiak horren inguruan ezar dezakeena eragotzi gabe.

12.2. Oinarri hauen arabera emandakoekin bateragarriak edo bateraezinak diren dirulaguntzak jaso dituzten entitatek laguntzak ematen dituen organoari jakinarazi beharko diote modu frogagarrian, hala legokiokeen kasuan, egindako itzulketaren agiriaren kopia erantsita.

12.3. Dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

*13. oinarria. Dirulaguntzen ordainketa.*

13.1. Ordainketak egingo dira zerga alorreko eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean dagoela frogatu ondoren.

13.2. Dirulaguntza programa honen jardueren izaera kontuan izanda (iraupena denboran eta ohiko kudeaketarekin bat ez datorren finantza kudeaketa), baita enpresen izaera ere, batez ere Eteak –finantzaketa eskuratzeko zailtasun handigoa dutenak–, lehen ordainketa aurreratu bat egin ahal izango da, abal beharrik gabe, beharrezko finantzaketa moduan, diru laguntzaren ekintzak gauzatu ahal izateko, betiere aurrekontu baliabideak badaude eta aurrerapen horiek ez badute gainditzen dagokion ekitaldiko aurrekontuari egotzi zaion dirulaguntza zatia (aurretik aurrerakinaren beharra egiaztatzen bada) aurrekakinaren beharra egiaztatu ondoren.

13.3. Gainerako zenbatekoa proiektua amaitzean ordainduko da, 14.3 oinarrian aurreikusitako zuriketa aurkeztu ondoren.

Hala ere, zenbateko hori osorik ordaindu daiteke proiektua edo jarduketa amaitu aurretik, dirulaguntzari dagozkion jarduketak gauzatu ahal izateko finantzazio gisa (aurretik aurrerakinaren beharra egiaztatzen bada); horretarako, banku abala edo Foru Aldundiaren iritziz nahikoa izango den beste finantza-erakunde batena aurkeztu beharko da eta honen zenbatekoa ordainketa aurreratuarena izango da, % 3 gehituta.

13.4. Abala kitatzeko, lagundutako proiektua amaitu dela egiaztatu beharko da. Horretarako, lanen deskargu tekniko, ekonomiko eta finantzarioa eta 14.3 oinarrian aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu behar dira.

*14. oinarria. Dirulaguntzaren justifikazioa.*

14.1. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduera gauzatu izana zuritu beharko du, baita jarduera horrek sortutako gastuak ere.

14.2. Proiektu diruz lagungarriak amaitu eta hilabeteko epean zuritu beharko dira.

14.3. Diruz lagundutako proiektua edo jarduera amaitutakoan, enpresa onuradunak zuriketa kontu zurigarri bat aurkeztu beharko du, ondorengo agiriak erantsiz:

a) Entitate eskatzailearen adierazpena, xede berarentzat eskatu edo jasotako dirulaguntza, diru sarrera edo baliabideei buruzkoa, orain eskatutakoarekin bateraezinak direnak azalduz.

